



COVID EKIMENAK ITUN BERDEKO ENPRESAK



La Jabonería de la Almendra

Jarduera: kosmetikoak eta xaboa egitea

Ekimen mota: bi ardatz nagusi dituen proposamen bat garatzea:

- Hondakin jakin bat berrerabili eta eraldatzea. Kasu honetan sukaldeko olioak, haren bidez xaboa egiteko.
- Omenaldia emakume arropa-garbitzaileei.

Egindako xaboiarekin eta arropa-garbitzaileen argazki handitu batzuen bidez, esker ona adierazi eta omenaldia egin nahi diegu emakumeei, betidanik egin dituzten garbitze-lanengatik.

Argazki horiek herriz herri ibiliko dira, bakoitzeko ikuztegian edo egoki iriztitako tokian erakusketa antolatuta, eta xaboi sortak emango zaizkie dena delako herri edo hiriko familia bakoitzari.



Servicios de Calidad y Consultoría Consulting, S.L.

Jarduera: aholkularitza

Ekimen mota: negozioarekin jarraitzeko higienizazio- eta kontrol-protokoloak ezartzea.



Kirolak

Jarduera: kirol-artikuluak eta sport estiloko arropa, iraunkortasun irizpideei jarraiki

Ekimen mota: izaki bizidun txiki batek mundua geldiaraztea lortu baino hilabete batzuk lehenago, Kirolak-en hausnarketa- eta aldaketa-prozesu bati ekin genion. Gure bezeroentzat hautatzen ari ginen marka eta produktuek ingurumen- eta gizarte-iraunkortasuneko irizpideak bete beharko lituzkete pixkanaka.

Gure helburu eta balioek, eta, batez ere gure ekintzek, bat etorri behar dute gure hornitzaileekin, bai eta gure bezeroen itxaropenekin ere.

Era berean, gure denda 'larruz aldatzeko' prozesua amaitzen ari gara: material berrerabilgarriak eta birziklatuak darabilzkigu, bai eta energia-eraginkortasuneko irizpideak ere.

Espazio desberdin eta berezi berri bat eskaini ahal izatea espero dugu, erosketa-esperientzia hobe, dibulgaziora, kontzientziatora eta gure bezeroen eta erreferentziazko marken parte-hartze eta interakziora irekitako espazio bat, alegia. Gure gain hartzen dugu, halaber, jendea bidezko arrazoiengatik mobilizatzen duten kolektibo eta elkarteekin dugun lankidetzeta eta inplikazioa zabaltzen jarraitzeko konpromisoa, batez ere kirol-, elkartasun- eta ingurumen-arloko erronken testuinguruetan. Hau hasi baino ez da egin –WORLD in PROGRESS–, eta asko poztzen gaitu elkarrekin parte hartzeko aukerak –MOVING PEOPLE–.



Ecowash Vitoria Sur

Jarduera: ibilgailu- eta tapizeria-garbigeta etxez etxe

Ekimen mota: besteak beste, Gasteizko taxi guztiak ozonoarekin doan higienizatzea.



Lakubarro

Jarduera: ingurumen Zerbitzuak - Garbigeta eta lorezaintza

Ekimen mota: desinfektatzeko eta higienizatzeke lana areagotzea, bezeroei eguneroko lanera lasai itzuliko direla bermatzen eta etxebizitza-komunitateei ingurune segurua sortzen laguntzeko



Leire Zulueta Botika

Jarduera: botika

Ekimen mota: maskarak eta COVID-19arekin zerikusia duten gainerako produktuen bilaketa. Gure azken ekarpena: maskara berrerabilgarrien bila ibili gara estatuan, eta halakoak egiten dituen enpresa bat aurkitu dugu.



Eguren Ugarte

Jarduera: upategia

Ekimen mota: partikularrei saltzeko online denda ireki eta sustatzea. Sustapena sare sozialetan. Bidalketa-gastuak doan.



Optimus 3D

Jarduera: ingeniariatza eta fabrikazio aditiboa - 3D Printing

Ekimen mota: COVID-19ari aurre egiteko, osasun sektorerako eta adinekoen egoitzetarako hainbat produktu diseinatu, fabrikatu eta dohaintzan ematea, fabrikazio aditiboaren edo 3D printing bidez, bereziki, biserak, maskarak, Decathloneko maskarak egokitzeko osagarriak, maskara-egokigailuak, etab..



Ega Master S.L

Jarduera: premium kalitateko esku-erremintaren fabrikazioa, industria aurreratuenentzako

Ekimen mota: COVID-19ak eragindako krisiaren aurrea, EGA Master enpresak langileekiko hartutako konpromisoen dekalogo:

1. Krisialdiak iraun bitartean enplegua mantentzea
2. Enplegu erregulazio espedienterik (EEE, ERE gaztelaniaz) ez aplikatzea, ezta aldi baterakorik (ABEE, ERTE gaztelaniaz) ere
3. Soldatak garaiz ordaintzea
4. Zerga-betebehar guztiak epe barruan betetzea
5. Konprometitutako inbertsioei eustea
6. Hornitzaile guztiei epe barruan ordaintzea
7. Langileen segurtasuna bermatzea, antolaketa- eta higiene- eta osasun-neurrien bidez
8. Langileei egoeraren berri garaiz ematea, eta informazioa gutxienez astean behin eguneratzea
9. Langileei familia-egoera konplexuak kudeatzeko malgutasuna eskaintzea
10. Telelana sustatzea eta, ahal den neurrian, mugikortasuna murriztea agintariak aholkatzen duten bitartean

Hau da, erakundeko giza taldearekiko eta, oro har, gizartearekiko konpromiso sendo bati eutsi nahi diogu, egoera ekonomikoa edozein dela ere, nahiz eta horrek enpresako akziodunen onura murriztu



Ega Solutions S.L

Jarduera: ingeniariatza

Ekimen mota: COVID-19ak eragindako krisiaren aurrea, EGA Solutions enpresak langileekiko hartutako konpromisoen dekalogo:

1. Krisialdiak iraun bitartean enplegua mantentzea
2. Enplegu erregulazio espedienterik (EEE, ERE gaztelaniaz) ez aplikatzea, ezta aldi baterakorik (ABEE, ERTE gaztelaniaz) ere
3. Soldatak garaiz ordaintzea
4. Zerga-betebehar guztiak epe barruan betetzea
5. Konprometitutako inbertsioei eustea
6. Hornitzaile guztiei epe barruan ordaintzea
7. Langileen segurtasuna bermatzea, antolaketa- eta higiene- eta osasun-neurrien bidez
8. Langileei egoeraren berri garaiz ematea, eta informazioa gutxienez astean behin eguneratzea
9. Langileei familia-egoera konplexuak kudeatzeko malgutasuna eskaintzea
10. Telelana sustatzea eta, ahal den neurrian, mugikortasuna murriztea agintariak aholkatzen duten bitartean

Hau da, erakundeko giza taldearekiko eta, oro har, gizartearekiko konpromiso sendo bati eutsi nahi diogu, egoera ekonomikoa edozein dela ere, nahiz eta horrek enpresako akziodunen onura murriztu.



Guardian products and promotions S.L

Jarduera: bilgarri malgua eta etiketak

Ekimen mota: maskara-eskasia dela eta, pertsonalizatu daitezkeen maskara berrerabilgarriak egin ditugu, helduentzat eta haurrentzat. Horiek langileen eta kolaboratzaileen artean kutsatzeko arriskua murrizten dute, eta, aldi berean, enpresaren irudi korporatiboa mantentzen da, % 100eko pertsonalizazioari esker. Maskara horiek 30 eta 60 °C artean garbitzen dira, berrerabil daitezke, eta UNE-065 arauaren baldintza guztiak betetzen dituzte. Gainera, birziklagarriak dira, eta irizpide arduratsuak erabili dira fabrikazio prozesuan eta materialen hautaketan. <https://guardian.es/social-mask-on-covid-off>.



AYSER - Desarrollos Informáticos, S.L.

Jarduera: web proiektuen garapena

Ekimen mota: alavacomercio.com plataformaren berraktibatzea, zein Gasteizko eta Arabako merkataritza online erakusleho baita. Plataforma horretan, 80 denda inguru dago alta emanda, eta beren produktuak argitaratu dira, merkataritza-fitxarako esteka batekin. Hartara, bezeroek webgunearen bidez erosi edo dendarekin zuzenean hitz egin ahal izango dute, nahi dituzten artikulua jasotzeko.

Plataforma duela bost urte baino gehiago sortu zen, irabazi asmorik gabe, eta denbora bat igaro ondoren, birdiseinatu eta birprogramatu egin da, dendek errazago kudea ditzaten erakutsi beharreko produktuak .



Nabla Wind Power

Jarduera: energia eolikoa


Ekimen mota: bulegoan lan egitera itzultzeko protokoloa garatzea. Protokolo hori hainbat fasetan banatzen da, kontuan hartuta konfinamendua arintzeko Gobernuaren plana, bai eta langileen osasuna bermatzeko gomendioak ere. Protokoloak aldaketak izan ditzake, erakunde ofizialek ematen dituzten gomendioei jarraituz.



Econatur Ikerketa

Jarduera: nekazaritzako elikagaien industrian kimika naturala irtenbide eraginkor eta eko-iraungarri gisa erabiltzea, aholkularitza espezializatua eta bioteknologikoa erabiliz.

Ekimen mota: Econatur Ikerketa start-up bioteknologiko bat da, nekazaritzako elikagaien sektoreko aholkularitza eko-iraungarriaaren alorrean diharduena. Elikagaien kalitatea eta segurtasuna hobetzea du helburu, soluzio kimiko iraungarriak baliatuz, prozesuen eraginkortasunari kalterik egin gabe. Econatur Ikerketa enpresa berritzailea da, eta nekazaritza-ustategietan erabilera eko-iraungarria lortzeko irtenbide natural berriak bilatzen eta eskaintzen ditu, elikagaien propietateak albat gehien sustatuz, eta sintesi kimikoz lorturiko produktuen erabilera ahalik eta gehien murriztuz. Laboreen produktibitatea eta kalitatea hobetzea, ingurumena errespetatzen duten nekazaritza-produktuak baliatuz... Hori posible da, betiere gai horretan adituak direnen aholkularitzekin. Econatur Ikerketak nekazaritza-ustategiei eragiten dien ingurumen-arazo nagusia konpontzen du. Gaur egun, gainera, kontsumitzaileek elikagaien ekoizleei egiten dieten eskakizun soziala bihurtu da, alegia, produktu kimiko gutxiago erabiltzea, eta produktu naturalen erabilera sustatzea, kasu bakoitzerako berariazko erabilera emanez. Baina kontuan hartu behar da, halaber, uzta galdu ezin duen nekazariaren ikuspegia. Horregatik, beharrezkoa da laborantzan etengabe aholkatzea, landare-osasunerako produktuen erabilera ahalik eta gehien murrizteko, uztaren errentagarritasunari eragin gabe.



Emaize Centro Sexológico

Jarduera: hezkuntza, aholkularitza, prestakuntza eta terapia sexologikoa

Ekimen mota: energia-kontsumoaren optimizazioa eta birziklatze-irizpideen hobekuntza.



NaturalVox

Jarduera: garapen eta integrazio informatikoa.

Ekimen mota: adimen artifizial aplikatuaren bidez, VOICEBOT izeneko telefono-aplikazio automatikoa garatzea, COVID-19ari eta hari lotutako gai buruzko informazioa emateko, segimendua egiteko eta autodiagnostikoa egiteko.



Aislamientos Asleko

Jarduera: isolamendua-lanak

Ekimen mota: beharrezko babes-ekipoak erabiltzen dira (eskularruak, maskara, lan-jantzia...) lanean, kutsadurarik gerta ez dadin.

Lana amaitutakoan, ozono bidezko desinfekzioa egiten da (homologatuta dagoen makinarekin), etxean bertan. Era berean, 'ozono bidezko desinfekzioa' izeneko negozio-ildoan abiatu dugu, beharrezko izapide guztiak eginda.



Diocesanás-Jesús Obrero Fundazioa (Egibide)

Jarduera: prestakuntza

Ekimen mota: norbera babesteko ekipoen (maskarak, buzoak, mantalak, segurtasuneko betaurreko eta eskularruak) eta desinfektatzeko produktuen (xaboi hidroalkoholikoa...) lagapena, nola laborategietan, hala AFAko adinekoen egoitzetan.

3D inprimagailuekin aurpegi-pantailak egitea.

Adineko pertsonen arreta eta laguntza ematea Egibideko ikasle boluntarioen laguntzarekin.

Ohiko jarduera areagotzea eta negozio-ildo berriak sortzea:

Instalazio konpartituak garbitu eta desinfektatzea, aurrez aurreko irakaskuntza-jarduerara itzultzerakoan, hezkuntza-gune seguruak prest edukitzeko.

Irakaskuntza telematikoa online (Google meet, Moodle...) intentsiboa egitea, ikuspegi inklusibo eta solidarioarekin, gure ikasleen artean gerta daitekeen jauzi digitalaren eragina urritzeko.

Tutoretza ekintza pertsonalizatu eta telematikoa, ezarritako eskola orduetatik harago.

Irakaskuntza-jardueren programazioa egokitzea, garaiz eta behar bezala egin ahal izateko.

2020-21 ikasturterako irakaskuntza-jarduera planifikatzea, azken hilabeteotan garatutako irizpide sanitario eta pedagogiko berritzaileak txertatuz.



Instalaciones BORO

Jarduera: berokuntza, iturgintza, aire girotua.

Ekimen mota: ohiko zerbitzuez gain, aireztapenetan instalatzeko desinfekzio-sistemak aztertu eta aplikatu dira, lokal publiko zein pribatuetan. Proba mikrobiologiko eta kimikoen laborategi batek bermatu eta ziurtatuko ditu, eta harekin batera lan egingo da.



Limpiezas Norte Brillante

Jarduera: garbiketa eta desinfekzioa.

Ekimen mota: COVID-19aren aurreko garbiketa areagotzen dugu bezeroen zentroetan, COVID-19aren aurreko garbiketa eta desinfekzio prebentiboak edo positibo eman ostekoak. Horretarako Roeb's-en egiaztapena daukagu, 0123-EAE zenbakiduna. COVID-19aren aurreko ospitalerako egokitu zen IMQ egoitzaren desinfekzioa, Alaves eta Baskoniarentzako desinfekzio-lanak, ligei begira, ozono bidezko bidezko desinfekzioa, elikagai-enpresentzako desinfekzio-lanak.



Arlekin

Jarduera: liburu-denda eta prentsa

Ekimen mota: "vending" makina bat jartzea, bezeroek prentsa eros dezaten. Horrekin bi helburu lortu nahi dira: itxaron-ilara saihestea eta artikuluen zein diruaren manipulazioa ekiditea.



BIKOnsulting, S. Coop

Jarduera: erakundeei lagundu eta aholku ematea Guztion Ongiaren bilaketan

Ekimen mota: COVID-19ak eragindako egoera aprobetxatuz, CITIZEN 2030 LANDA-PROIEKTUAREN bidez hirietara hurbildu nahi da nekazaritza-eremuko errealitatea. Horrela, gaur egungoa bezalako pandemiaren aurrean nekazaritza-eremuak dituen abantailaz jabetuko gara. Biztanle-dentsitate txikiak asmo urritzen du birusaren transmisio-ahalmena; horrenbestez, etorkizuneari hirien dentsitatea berraztertu egion behar litzatekeela uste dugu. Gasteizko udalerria kutsadura-tasa handienetakoa izan dutenen artean dago. Bada, Gasteizek mugakide dituen udalerririk batzuetan (esaterako Kuartango eta Añanakoak) eta hertu dituen beste batzuetan (Harana, Lagran, Urizaharra kasu), eta urrunago, Arabako Errioxako Kripan eta Navaridasen, adibidez, ez dute diagnostikatutako koronabirus kasurik izan. Horiek guztiak 400 biztanletik beherako udalerririk dira, eta biztanleria-dentsitate txikiena dutenak. Herriak eta haien berrakibazioa ere izan daitezke hirien birdentsifikazio hori baretzen laguntzeko elementua; beraz, telelanarekin eta konektibitate-baldintzen hobekuntzarekin batera, etorkizuneko gaixotasun kutsakorretarako prestatu ahal izango gara.



Museo del Órgano jatetxe begetarianoa

Jarduera: jatetxea.

Ekimen mota: 'MdÓ proiektua bultzatu' kanpaina: aurrez ordaintzeko menu-bonuen eta jatetxeko opari-txartelen sistema. % 10 Bionekazaritza Arabari ematen zaio, zein probintziako nekazari ekologikoen elkarte den, bai eta gure proiektuaren kolaboratzaileak ere:

<http://museodelorgano.com/apoya-proyecto-museo-del-organo/>

Non-nahi zerbitzua: 'Take-away' eskaera-sistema berria. Jendeak etxetik tupperra ekarri eta, alde zuzenetik eskatuta, gure menuak nahi duen tokian jan ahal izatea sustatzen dugu, horrela, guztiok "zero hondakin" filosofiari laguntzen diogu: <http://museodelorgano.com/servicio-non-nahi/>

Bagoaz zerbitzua: janaria auzoko establezimendu eta bulegoetara eramateko sistema berria. Menuak etxez etxe ematea sustatzen dugu, gure bitartekoekin, natura errespetatzen duen sistema batekin, janari azkarra banatzeko zirkuituetatik kanpo <http://museodelorgano.com/servicio-bagoaz/>



Hotel Jardines de Uleta Suites

Jarduera: hotela

Ekimen mota: 100 radio-iratzargailu adinekoen egoitzei lagatzea, Psikopompo elkartearen bidez.



Obras Públicas Onaindia S.L

Jarduera: birzikapena eta garbiketak

Ekimen mota: ureztatzeko ibilgailuen erabilera egokitzea, enpresa pribatu eta entitate publikoetan hipoklorito bidez desinfektatzeko.



CO2 Ingeniería 3.0

Jarduera: industria-ingeniaritza eta energia-ingeniaritza

Ekimen mota: kudeaketa guztiak doan egitea, hartara enpresa txiki eta ertainetan eta negozio txikietan energia-fakturak duen eragina gutxitzeko. <https://cooi3.blogspot.com/2020/03/todos-los-consumidores-podrian-reducir.html>



San Prudencio Ikastetxea

Jarduera: hezkuntza

Ekimen mota: SanPru Klub proiektu solidarioa.

Erakusleihen pribatua, web-orriaren bidez elkargune eta harreman-aukera bat eskaintzeko COVID-19aren pandemiaren eragindako krisiaren ondorioz jardura itxi edo murriztu behar izan duten kooperatibisten negozioei eta kooperatibistei beraiei. Negozioek beren produktu eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta kooperatibistak haiekin harremanetan jartzen dira, horiek eskuratzeko.

Produktua berehala banatu ezin duten kasuetan, produktua orain erosi eta gerora kontsumitzeko aukera sustatuko da.

COVID-19aren krisian merkataritza jarduerari jarraitu nahi dioten eta denda edo negozioak dituzten, edo horietan lan egiten duten familiei zuzentzen zaie.



Mizar Additive Manufacturing

Jarduera: fabrikazio aditiboa, plastiko eta metal bidez

Ekimen mota: Lankidetzaren Bioaraba eta Biocrucesekin, lehen lerroan eta modu altruistan, COVID-19ren krisiaren aurrean Osakidetzari produktuak uzteko, hainbat osagaien garapenean iturri homologatua den aldetik, hornidura hautsi denez gero:

- ZIU aurretiko balbulak
- Arnasgailu inbaditzaileak
- Norbera babesteko ekipoak: Maskarak eta pantailak (gaur egun egiaztapeneko prozesuan daudenak)
- Beste osasun-material batzuk



Fraternidad-Muprespa

Jarduera: gizarte Segurantzaren kolaboratzailea

Ekimen mota: alarma-egoeran, autonomoei jardura eteteko prestazioari buruzko

aholkularitza eta izapidetzea, COVID-19aren ondoriozko baja-prozesuetako aldi baterako ezintasuneko prestazioak ordaintzea, gure enpresei lanera itzultzeko prebentzio-neurriak jakinaraztea, administrazio-kudeaketa telematikoetarako tresna informatiko berriak... Barne-mailan, gure osasun-langileentzako protokolo berriak, funtsezkoak ez diren langileen telelana, langileen arteko komunikazio-tresnak ezartzea (Zoom, Jabber...), online prestakuntza indartzea...

Susperraldi Berde baten aldeko Europar Itunera atxikitzea; zutabe hauetan oinarritzen da Itun hori: digitalizazioa, deskarbonizazioa eta erresilientzia.

RECYCYLE

Recycle

Jarduera: plastiko-elementuen konponketa

Ekimen mota: ekainaren 1etik aurrera, Araban plastikozko edozein elementu doan konpontzea (arrisku-egoeran egonik Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren bat jasotzen duten ETE, autonomo eta partikularrentzat).

SOLIDMACHINEVISION

Solid Machine Vision S.L.

Jarduera: ikusmen artifiziala

Ekimen mota: Makers Covid-19 ekimenarekin bat egitea, ospitaleak gainezka zeudenean eta osasun arloko profesional askok babes egokirik ez zutenean laguntzeko. Lantegiko 3D inprimagailu batekin biserentzako euskarriak egin dira, eta inguruko ospitale bati modu solidarioan laga zaizkio, egin den ahalegin guztia eskertzeko.

Horrekin batera, eta aintzat hartuta jarduera nagusia –ikusmen artifiziala– ezinbesteko teknologia dela une honetan funtsezkoak diren ekoizpen-prozesuak optimizatzeko, irudia eta automatizazioa aztertzeke irtenbideak eskaintzen diogu osasunaren sektoreari: laborategiei, farmazia-konpainiei eta osasun-produktuak egiten dituzten fabrikei. Nekazaritzako elikagaien industria. Logistika-, prozesatze- eta paketatze-zentroak. Horrez gain, segurtasuna eta osasun publikoa betetzeko irudiak prozesatu behar dituzten azpiegituretarako ere balio du